

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

5026

HUTSEN ZUZENKETA, honako dekretu honena: «196/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan egindako hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako akatsak aurkitu dira Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuan (2013ko apirilaren 24ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 78. zenbakia), euskarazko bertsioan. Hori dela eta, dagokien zuzenketa egiten da ondoren:

2013/1946 (19/6) orrialdean, 7.1.f artikuluan,

Honela dio:

«f) Lurra eta hirigintza».

Baina honela esan behar du:

«f) Lurzorua eta hirigintza».

2013/1946 (19/6) orrialdean, 7.2.c artikuluan,

Honela dio:

«c) Sailaren jarduera koordinatzea Jaurlaritzako gainerako sailen, Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien, udalen eta gainerako instituzio, elkarte eta erakunde publiko nahiz pribatuen aurrean. Europako eta nazioarteko eremuan, koordinazio hori Lehendakaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin lankidetzan egingo da».

Baina honela esan behar du:

«c) Sailaren jarduera koordinatzea Eusko Jaurlaritzako gainerako sailen, Eusko Legebiltzarren, Arartekoaren, foru-aldundien, udalen eta gainerako instituzio, elkarte eta erakunde publiko nahiz pribatuen aurrean. Europako eta nazioarteko eremuan, koordinazio hori Lehendakaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin lankidetzan egingo da».

2013/1946 (19/8) orrialdean, 8.2 artikuluan,

Honela dio:

«2.– Zerbitzu zuzendaria sailaren kontratazio-organoa izango da eta, baldintza beretan, obrak egiteko eta zerbitzuak emateko kudeaketaren ardura emateko eskumena izango du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 4.1.n) eta 24.6 artikuluetan aurreikusitako eran».

Baina honela esan behar du:

«2.– Zerbitzu zuzendaria sailaren kontratazio-organoa izango da eta, baldintza beretan, obrak egiteko eta zerbitzuak emateko kudeaketa-gomendioetarako eskumena izango du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 4.1.n) eta 24.6 artikuluetan aurreikusitako eran».

2013/1946 (19/10) orrialdean, 10.1.h artikuluan,

Honela dio:

«h. Garapen iraunkorraren bermea eta sustapena».

Baina honela esan behar du:

«h. Garapen jasangarriaren bermea eta sustapena».

2013/1946 (19/12, 19/13 eta 19/16) orrialdean, 11.1.q, 12.1.p eta 15.1.r artikuluetan,

Honela dio:

«Beste administrazio batzuekiko eta pertsona publiko nahiz pribatuekiko zuzendaritzaren gaietan».

Baina honela esan behar du:

«Beste administrazio batzuekiko eta pertsona publiko nahiz pribatuekiko zuzendaritzaren gaietan egiten diren hitzarmenak eta lankidetzatresnak betetzea eta horien jarraipena egitea».

2013/1946 (19/17) orrialdean, 17.d artikuluan,

Honela dio:

«Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lankidetzat Kontseiluaren laguntza teknikoa eta idazkaritza ematea».

Baina honela esan behar du:

«Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuaren eta Lankidetzat Kontseiluaren laguntza teknikoa eta idazkaritza ematea».

2013/1946 (19/18) orrialdean, Lehenengo xedapen gehigarrian (Ordezkapenen araubidea),

Honela dio:

«Sailburuordeen eta zuzendarien postuak bete gabe egonez gero, egoerak dirauen bitartean eta sailburuak bestelako erabaki berariazkorik eman ezean, honako ordezkapen-arau hauek beteko dira:».

Baina honela esan behar du:

«Sailburuordeen eta zuzendarien postuak bete gabe egonez gero, edo titularrok kanpoan edo gaixorik egonez gero, egoerak dirauen bitartean eta sailburuak bestelako erabaki berariazkorik eman ezean, honako ordezkapen-arau hauek beteko dira:».